

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2506

616/2019 EBAZPENA, maiatzaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, aldi baterako izendatzen da, erakunde horretan, Juan Ramón Iriondo Bedialauneta jauna, Otorrinolaringologiako zerbitzuburu, lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.

EGITATEAK

1.– Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen urriaren 3ko 1825/2018 ebazpenaren bidez, Barrualde-Galdakaoko ESlan Otorrinolaringologiako zerbitzuburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin da. Ebazpena hau EHAAn (2019ko otsailaren 19koa), BOEn (2019ko otsailaren 25ekoa) eta Osakidetzaaren web-orrian argitaratu zen.

2.– Deialdi-ebazpen hori dagokien aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunak 15 egun baliioduneko epea izan du eskaera aurkezteko; 2019ko martxoaren 18an amaitu zen epea.

3.– Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak aztertu ondoren, Osakidetzaaren web orrian onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu zen (2019ko martxoaren 25ekoa).

4.– Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta (2019ko apirilaren 8an), eta ez denez bat ere aurkeztu, behin betiko zerrendak onartzen dira (2019ko apirilaren 9an), dagokion eran argitaratzeko.

5.– Behin betiko zerrendak, Balorazio Batzordeko kideen izendapenarekin batera, baita kudeaketaren memoria-proiektua jendaurrean jartzeari buruzko deialdia ere, Osakidetza web-orrian argitaratu ziren, 2019ko apirilaren 9an. Hautagaiei ere jakinarazi zitzaizen aipatutako deialdia.

6.– Kudeaketaren memoria-proiektua jendaurrean jarrita, eta Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskabidea baloratuta (2019ko maiatzaren 7an), baita dagokion izendapen-proposamena eginda ere (2019ko maiatzaren 7an), eta Juan Ramón Iriondo Bedialauneta jaunak dauzkan ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, hau erabaki da: pertsona hori izendatzea Otorrinolaringologiako zerbitzuburu, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESlan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari gerentearen urriaren 3ko 1825/2018 Ebazpenaren 7. oinarriak ezartzen du Kudeaketa Zuzendaritzak, egindako proposamena ikusita, proposatutako izangaia deialdian eskainitako lanpostua betetzeko izendatzeko edo deialdia hutsik uzteko ebazpen bat emango duela.

2.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 3. arau komuna; uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, lanpostu funtzionalak

arautzen dituena; eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituena, bereziki zerbitzu-erakundeetako zuzendari gerenteen eskumenei buruzko 15. artikulua jasotakoak eta aplikatu beharreko arauak buruzkoak.

Aurreko guztia aintzat harturik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Ramón Iriondo Bedialauneta jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde- Galdakaoko ESIko Otorrinolaringologiako zerbitzuburu izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Aldi baterako izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean xedatutakoarekin bat etorritik, eta 2019ko maiatzaren 8tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitutakoan lanpostua utziko du, ezpada luzapena onartzen, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango dute, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunaren 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Seigarrena.– Ebazpen hau argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzaren web-orrian.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Galdakao, 2019ko maiatzaren 8a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.